



IGERILEKU
BETE
ZALANTZA

Erkuden Ruiz Barroso URDIAIN

Nerea Berastegi Zufiaurre urdiaindarrak Nafarroako Gobernuak emandako doktoretza egiteko beka jaso du. Beka deialdira 98 ikertzaile aurkeztu ziren, eta hamaiketik jasoko dute azkenean haien proiektuetan garatu ahal izateko dirulaguntza. Hamaika horietatik Berastegi. CIMA Nafarroako Unibertsitateko ikerketa zentroan leuzemia mieloide akutuen inguruan ikertzen ari da.

Zer sentitu zenuen Nafarroako Gobernuak ematen dituen doktoretza egiteko beka eskuratu zenuela jakitean?

Ez nuen espero, eta oso pozik hartu nuen. Kompetentzia handia dago. Nire izena zerrendan ikusi nuenean saltoka hasi nintzen. Ez nuelako espero. Nire zuzendaria ondoan zegoen eta bera ere saltoka hasi zen; poz-pozik.

Zertan datza beka hori?

Doktoretza egin ahal izateko beka bat da. Nire soldata izango da. Azkenean, doktoretza lan bat da, orduan, gure soldata lortzeko beka bat eskatu behar dugu. Nafarroako Gobernuak ematen duen beka hori gure soldata izango da doktoretza irauten duen hiru urtetan zehar.

Beraz, oso garrantzitsua da beka bat jasotzea.

Hasiera batean nire zuzendaria denak urte bat eskaini zidan. Berak urte bat ordainduko zidala esan zidan. Orain urte horren barruan nago. Orduan, urte honetan saiatu behar nintzen beka bat lortzen. Oso eskertuta nago urte honetarako finantziarioa eman zidalako. Nigan sinistu zuelako. Orain, pozik nago beka lortu dudalako eta nire kontu nagoelako.

Beka jaso izan ez bazenu, ikerketa hori bertan behera geldituko litzateke?

Printzipioz, zuzendariak finantziarioa lortzeko urte bat eman zidan. Berak uste zuen beka bat lortzeko aukera nuela. Lortu izan ez banu... ez dakit. Ez nuen pentsatu nahi. Saiatuko nintzela pentsatu nuen; lortzen banuen lortuta zegoen, eta ez banuen



Nerea Berastegi Zufiaurre biologo urdiaindarra. UTZITAKOA

"Ikerketaren zuzendariak nigan sinistundu"

NEREA BERASTEGI ZUFIAURRE BIOLOGOA

Doktoretza egiteko beka jaso du urdiaindarrak. CIMAKo hemato onkologia taldean ari da bere ikerketa egiten. Proiektua aurrera eramateko ezinbestekoa izan da beka jasotzea

lortzen ikusiko nuen zer egingo nuen.

Nolakoa izan da beka lortzeko prozesua?

Hasteko lehenengo fasea dago, eta lehenengo fase horretan ebaluatzen zaituzte zu eta zure esperientzia akademikoa unibertsitate ikasketetan zehar. Masterrereko notak ez du balio. Publikazioak edo posterrak ere kontuan hartzen dituzte. Ni lehenengo mailan nago eta aurten doktoretza matrikulatu naiz, orduan, nik publikazioak izatea oso zaila da. Aurkez daitezke ere beste maila batzuetan dauden doktoregaiak, eta haiek publikazio gehiago izan ditzakete. Behin lehenengo fasea pasata proiektua eta zuzendaria baloratzen zen. Lehenengo fasea pasatu nuenean pentsatzen nuen akats bat zegoe-la, ni lehenengo mailan egonda unibertsitatean egindako posterren bat daukat, baina ez dut artikulua zientifikorik aldizkarietan publikatuta. Baina pasa nintzen. Proiektua baloratu zuten, zuzendariak baloratu zituzten eta ondo joan da dena.

Masterra aipatu duzu, doktoretza egiteko aurretik masterra egin behar duzu, ezta?

Bai. Derrigorrezkoa da masterra edukitzea doktoretza egiteko, baina ez da bekarako puntugarria.

Zein master egin zenuen?

Nafarroako Unibertsitatean medikuntzako ikerkuntza masterra egin nuen, minbiziaren espezializazioan. Masterraren Master Amaierako Lana egin behar duzu, eta orain nagoen hemato onkologia taldean egin nuen. Zuzendariak esan zidan: "Begira, Nerea, gustatuko litzazuke gero tesia egitea?". Eta abentura hasi nuen.

Zer ikertzen ari zara?

Proiektua leuzemia mieloide akutuen inguruan da. Leuzemia mieloide akutua odoleko gaixotasun bat da, non zelulak ez daukaten desberdintzeko gaitasunik eta zoru moduan ugartzen hasten diren; hezur muin guztia hartzen dute eta bertako ehun hematologikoa



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLEOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

baztertzen dute. Berehala tratatzen ez bada hilgarria da, eta pronostiko txarra dauka. Leuzemia hori izan daiteke de novo sortzen dena edo beste gaixotasun batzuen ondorioz sortzen dena. Horien artean odoleko mielodisplasia deritzona dago: odoleko zelulek ez dute desberdintzeko ahalmenik. Orduan, bi mota horiek tratatzeko modua oso antzekoa da, nahiz eta klinikoki oso desberdinak izan. Bigarrenak askoz pronostiko okerragoa du eta terapeutikoki askoz erresistenteagoa da. Guk proposatzen duguna da maila molekularrean bien arteko konparaketa egitea, azken helburua diana terapeutiko berriak bilatzea da; pertsona horien tratamendua hobetzea edo behintzat pronostikoa hobetzea.

Eta ikerketa zein fasetan dago?

Master Amaierako Lana hemen hasi nuen, eta beka eman didaten proiektu hau nahiko berria da. Horregatik, ni orain mielodisplasia nago. Leuzemiaren aurreko gaixotasuna da. Diana terapeutiko batzuk testatzen ari dira. Hurrengo pausua leuzemiarako pausu hori izango da. Ikerkuntza motela da.

Nola egiten da horrelako ikerketa bat?

Azaltzea zaila egiten zait ohi-tuta nagoelako zientziaren munduko jendearekin hitz egitera. Beka eman didaten proiektu hau Carlos III Osasun Institutuak emandako proiektu baten barnean dago ere. Proiektua urtarrilean hasi zen. Orain laginak jasotzen gabilta. Salamanca, Bartzelonan eta hemen Nafarroako Unibertsitate klinikan kolaboratzaile batzuk ditugu, eta gaixotasuna duten pertsonen laginak iristen zaizkigu. Lagin tamaina egokia bilatzen joaten gara, eta gero gaurko teknologia nahiko puntako diren genomikarekin maila transkripzionalean deritzonenean zein ezaugarri dituen aztertzen dugu. Gaixo horiek mielodisplasia ondoren dauden konparatuko dugu. Hasten gara poliki pazienteek dituzte ezaugarri horiek ikusten eta gero ezaugarriren bat aukeratu dugu zeluletan edo animalietan probatzeko. Lehenengo zeluletan egiten da, eta ondo ateratzen bada animalien ganako salto hori egin daiteke.

Emaitzak argi ikusten dira edo aldatuz joan daitezke?



Nerea Berastegi Zufiaurre laborategian. UTZITAKOIA



Biologo urdiaindarra CIMA ikerketa zentroan. UTZITAKOIA

"DOKTORETZA EGIN AHAL IZATEKO BEKA BAT BEHAR DA; NIRE SOLDATA DA

"HIPOTESI BATEKIN HASTEN GARA, BAINA HIPOTESI HORI BETE DAITEKE EDO EZ"

Hipotesi batekin hasten gara, baina hipotesi hori bete daiteke edo ez. Orduan, poliki-poliki zer dagoen eta nondik joan zaitezkeen ikusten joaten zara. Agian pentsatu duzun gauza bat oso interesgarria dela edo pentsatu duzun hori emaitza bezala atera daitekeela, eta justu agertzen da beste gauza bat interesgarria dena ere eta hortik tiratu daiteke ere. Emaitzak ateratzea kostatzen da.

Beraz, ikerketa bat egitea zaila da?

Gustatzen bazaizu, lortzen den momentuan izugarria da! Lortzen denerako agian ez zaizu hamar aldiz atera. Egin behar dena da saiatu eta begiratu ea zergatik ez den atera, zer izan daitekeen hurrengo urratsa... Momentu horretan ikusten duzu kostatzen dela. Baina esan bezala lortzen duzunean izugarria da.

Zergatik aukeratu zenuen gai hori?

Bilbon biologia ikasi nuen eta han Gradu Amaierako Lana burmuineko minbiziari buruz izan zen. Beti nahi izan dut minbizia landu. Ez hainbeste pazientearekin lanean egotea, oso gogorra egiten zitzaidalako, baizik eta maila molekular batetik. Zer dagoen gaixotasun horren oinarrian; zergatik gertatzen den gauza bat, zergatik bestea, gaixotasuna ulertzen saiatu eta abar. Orduan, bertan egon nintzen taldean ere hematologia arloa zegoen eta hemengo taldea eza gutzen zuten. Horrelako lotura bat izan zen.

Eta atzera eginez, zergatik ikasi zenuen biologia?

Nik berez biokimika ikasi nahi nuen. Baina selektibitatean ez nuen nota lortu, justu urte horretan nota igo zelako. Orduan, pentsatu nuen biologian sartuko nintzela eta gero biokimikara aldatuko nintzela. Baina biologian zegoen giroa gustatu zitzaidan, eta jendearekin hitz egitean esaten zidan biologia esparru zabalagoa dela eta, azkenean, beti joan nintekeela biokimika aldera. Baina hain zabala ez den esparru batetik jotzen baduzu, eta gero zabalagoa den hori gustatzen bazaizu, zailagoa da. Beraz, biologian gelditu nintzen eta beti argi izan dut esparru honetatik joan nahi nuela, besteari uko egin gabe; biomedikuntza egin nahi nuela. Bigarren batxilergoan nengoenean Altsasu institutuan banekien zer ez nuen egin nahi, bai-

na ez nekien oso ondo zer egin nahi nuen. Poliki-poliki biologia gustatu zitzaidan, eta hor sartu nintzen.

Doktoretza egitea, noiz erabaki zenuen?

Idea banuen, baina ez nekien oso ondo zer egin eta zer ez egin. Azkenean, laborategi batean ez bazaude, eta bertako bizitza eta egunerokotasuna ez baduzu ezagutzen, ideia bat eduki dezakezu baina ez dakizu zenbateraino gustatuko zaitzun, edo ez. Orduan, doktoretza egitea erabaki nuen nire zuzendariak proposatu zidan momentuan.

Doktoretza hiru urte egingo dituzu, tesia publikatuko duzu, eta gero zer?

Galdera ona, baina zaila. Ez dakit. Ni orain hiru urte hauetan enfokatzen naiz. Gero ikusiko dugu. Oraingoz ikerkuntzan gustura nago, ea hemendik hiru urtetara zer esaten dudan.

Koronabirusarekin zientzialariak modan zaudete, baina orain arte estatuan zientziarekiko eta ikerzaileekiko errespetu falta handia egon dela salatzen zuten ikertzaileek. Zein da egoera? Aldatuko dela uste duzue?

Gustatuko litzaidake pentsatzea baietz, konturatu direla garrantzitsuak garela eta ea ez duten zientzian murrizten. Ikusiko dugu zer gertatzen den. Gustatuko litzaidake pentsaera aldatu izana, izan ere, zientzia inbertsio bat da baino etorkizunean ematen ditu emaitzak. Ez da momentuko zer bait. Orduan, kostatzen zaie inbertitzea emaitzak momentu horretan ez badituzte ikusten. Emaitzak orain nahi dituzte, baina zoritxarrez ez da horrela.

Horren harira, talentu edo burmuinen ihesaldia bezala ezagutzen dena gertatu da. Noizbait atzerrira joan behar izatea planteatu duzu?

Sekula ez zait burutik pasa. Hasieratik geratzeko aukera izan dudanez, ez zait burutik pasa. Baina nire klasean bai egon dela jendea bekarik lortu ez duena nik lortu dudanez, eta kanpora joatea planteatzen ari dena. Gustatzen bazaizu eta hori egin nahi baduzu, baina hemen aukerarik ez baduzu, kanpora zoaz. Triste da, hemen trebatzen gara, bertakoak gara eta hemen geratu nahi dugu. Baina ez dugu horretarako aukerarik. Aukera bat jaso arte, ez pila bat jasoko dituzu.



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

Sakanan bizi eta lan

Aspalditik inguruan dabilen leloa eta nahia dugu Sakanan bizi eta lan. Ez dakit zenbat sakandarrek lan egiten duen eskualdean, zenbatek eskualdetik kanpo, inguruko herri edo hirietan (Iruñean, Gasteizen, Goierri, Donostian...) eta zenbat lagun etortzen diren lanera Sakanara.

Sakanan lanik ez egiteko arrazoiak ere asko izan daitezke: bertako enpresa edo administrazioetan norbere formazioari dagokion lanposturik ez egotea, edo eskualdean lan egin nahi ez izatea, eskualdetik kanpo baldintza hobekak dituen lanpostua delako edo ibilbide profesional erakargarriagoa izan dezakeelako, eta abar. Horregatik hasierako lelo horri nabardurak jarriko nizkioke, gainerakoan, nik bederen, zaila edo lor ezina ikusten dudalako. Jakin badakit, bertako eragile sozial eta ekonomikoak helburu hori sustatzeko neurriak proposatzen, bideratzen eta lan ona egiten ari direla azken urteotan. Halere, proposamen bat luzatu nahi nuke plaza honetatik.

Koronabirusak begien bistan jarri dizkigu, batetik, herriak aukera ona direla bizitzeko, neurri batean askatasun gehiago eskaintzen dutelako; eta, bestetik, zenbait lanpostu (ez naiz ez hezkuntza arloaz ez beste antzeko arlo batzuek ari), zati batean behintzat, telelanaren bidez egin daitezkeela. Pisuzko arrazoiak Sakanan bizi eta lan leloa sustatzeko.

Berriki jakin dut Nafarroako Gobernuko Funtzio Publikoak telelana arautzeko proposamen bat luzatu behar diela sindikatuei. Berri ona! Administrazioa bidea egiten hasten baldin bada, atzetik etor daitezke enpresa pribatuak. Hortaz, ez legoke gaizki balizko aukerak aztertzen hasia. Eskualdetik kanpo lan egiten duten langile horiek Sakanatik bertatik, eta ahalik eta gutxien mugituta, lan egiteko aukerak azter daitezke, esaterako, bakoitzak bere etxetik egitea zenbait egunetan, bulego partekatua ezartzea herrietan... Bide horiek edota beste batzuk aztertu, jorratu eta bultzatzea jendea herrietan bizitzen gelditzeko pizgarriak izan daitezkeelako. Adibidez, eman dezagun, Sakanako gazte batek lana Iruñean edo Gasteizen aurkitu duela eta etorkizun hurbilean non biziko den erabaki behar duela, alegia, etxea non alokatu edo erosiko duen, familia non osatuko duen... Gazte horri, lanpostuaren ezaugarriak uzten badiote, bere lanaren zati bat on line egiteko aukera ematen baldin bazaio, eta egunero 80 kilometroko bidaia (astean 400) egin ordez, asteen bi egunetan (160 kilometro) lanera joateko aukera ematen baldin bazaio, apika, herrian bizi bai ala ez erabakitzeko ekuazioaren emaitza herriaren aldekoa litzateke.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Zauri sakona

SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

Benetan sakona Covid-19 izurrite honek adinekoengan sortu duen zauria. Datu zehatz zehatzik ez dago, baina gutxi gorabehera Euskal Herrian 850 pertsonatik gora dira adinekoen egoitzetan hildakoak, hildakoen %42. Nahigabea, atsekabea sorrarazten duen errealitatea da, eta zer esanik ez hiltzerakoan pairatu behar izan dituzten baldintza penagarriak gogoan hartzen baditugu. Agur eta ohore guztiei eta elkartasuna familiakoei.

Errealitate gordin honek kezka eta galdera bat baino

gehiago sortzen dizkigu: Beharrezkoa izan al da? Errudunik ba al dago? Saihestu al zitekeen? Erantzukizuna eskatzerik ba al dago? Nori?

Ez gara inozoak eta ez dut esango erantzun bakarra dagoenik, baina, ez dut zalantzarik, nagusi sistema kapitalista finantzarioari dagokiola, gertatua ikusi eta gero. Zoritxarrez, adinekoen egoitzak diru iturri bilakatzen ari dira eta pribatizazio honen kudeaketak eragin zuzena du adinekoen ematen zaizkien zerbitzuekin. Baliabide murrizak eta langile kopuru desegokiak behar zaien arreta eta adeitasuna eskaintzeko. Hori gertatu da irabaziak bezeroen ongizatearen gainetik jartzen dituztelako. Errudun nagusiak direla uste dugu. Egoera larri honetan

adineko pertsonen bizia babesteko ez dute gaitasunik izan. Izurriteak beraien gabezia eta interesak azaleratu ditu. Ez ditugu nahi.


Nafarroako Gobernuaren eta talde politikoen erantzukizuna ere aipatu beharra dago. Beraien politikak adinekoen egoitzen pribatizazio hau ahalbidetu du, gure aldarrikapenari entzungor eginez. Erresidentzia publikoak egiteko dirurik ez dago; pribatuei emateko, bai. Gertatua ikusi eta adinekoen ongizateari dagokion guztia birplanteatu beharko dute. Behin eta berriz gogoraraziko diegu: "diru publikoa zerbitzu publikoetarako". Gabezia asko egon dira eta aldarrikapen nagusi honetatik abiatuta, beste alternatiba batzuk sortzeko gai izango ahal gara aurrerantzean.



DUELA 25 URTE...

100 kontzertu aurretik

1995eko udan Gozategi taldeak 100 kontzertu eman behar zituen festaz festa. Bi hilabete lehenago estreinako diskoa argitaratu zuen taldeak. 15 piezez osatutako lanak arrakasta handia lortu zuen. Iñigo Goikoetxea urdindarrak diskoaz esan zuen: "letra eta doinu alde-tik alai, barregarria. Erritmo berria triki munduan baita euskal musikan ere". Goikoetxea musika eta ikasketak uztartzen ari zen garai hartan.



guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maria Luisa Zelaia

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675**Nafarroako Gobernua**
Gobierno de Navarra



Olatzagutiko igerilekuetan konponketak eta txukuntze lanak hasi dituzte.

Igerileku sasoia prestatzen

Igerilekuen irekieragatik udaletako kideak ohi baino buruko min gehiago hartuta dabilta aurten. Batzuk oraindik egoera aztertzen ari dira. Zabaltzen diren herrietan higie eta osasun neurriak eta jendearen arteko distantzia bete beharko da

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Koronabirusak eragindako alarma egoerak jakinarazpenez bete ditu Sakanako udaletxeak. Gobernuek onartutako araudiak herrian aplikatzeko moldatu behar izan dira. Baina osasun larrialdian zehar araudi horiek aldatzen joan dira. Eta antzeko zerbait gertatzen ari da igerilekuen inguruko araudiarekin. Erabilera publikoko igerilekuak zabaltzeko aukera izanen da, baina baldintzak maiz aldatzen ari dira eta udal arduradunak nahikoa txoratuta dabilta haiek beraien herrira egokitzeke.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak igerilekuak dituzten udal guztiei 2020ko Igerilekuen Osasun Zaintzako Programa aurkeztu zien ostiralean. Institutuak udalei aholkatu die igerilekuen irekiera, ahal den neurrian, hilaren

azken astera arte atzeratzea. Era berean, une bakoitzean indarrean dagoen araudia aplikatzeko beharra gogorarazten da, osasun agintariak adierazten dituzten ohar eta gomendioak oso kontuan hartuz. Azken helburua da udal igerilekuak erabiltzaileendako ahalik eta segurtasun baldintza handienez irekitzea.

Aipatu institutuak emandako irizpideak eta gomendioak segituz irekiko dituzte zabaltzen diren udako igerilekuak. Erabiltzaileek higie eta osasun neurriak, baita pertsonen arteko segurtasun distantziak ere bete beharko dituzte.

IRURTZUN, UHARTE ARAKIL, URDIAN ETA OLATZAGUTIKO IGERILEKUAK ZABALDUKOTITUZTE

Horrek, jakina, igerilekuen edukiera mugatzea ekarriko du, eta edukiera betetzean jendea sartu ezinik gelditzea bakarren bat atera arte.

Herriz herri

Irurtzungo Udalak jakinarazi du igerilekuak garilaren 1etik irailaren 6ra zabalik egonen direla. Igerilekuak kudeatzeko kontratatutako langileek adierazitako baldintzak nahitaez bete behar dituzte. Udalak jakinarazi duenez, dutxak ezin izanen dira erabili. Taberna zerbitzua izanen da. Aitor Larraza Carrera alkateak gaztigatu duenez, "salbuespeneko neurriak hartu dira albuespeneko garaietarako; kanpoko erabakien menpe egonen gara uneoro, eta aldaketak egon daitezke instalazioen funtzionamenduan".

Prezioei dagokienez, udalak prezioak murriztu ditu: 5 urtera arteko haurrek eta 65 urtetik go-

rakoek dohainik izanen dute sarre, 5 eta 14 urte bitartekoek 44 euro pagatu beharko dituzte sa-soiko txartelagatik, 14 eta 18 urte bitartekoek 54 euro eta 18 eta 65 urte artekoek 74 euro. Eguneko sarrearen (4,5 eta 7 euro artean) eta 15 eguneko txartelen kostua mantendu da (18 eta 48 euro artean). Ordainketa helbideratze berriak edo bazkideen bajak hilaren 18rako jakinarazi behar dira. Familia abonua ere badira. Txartelen kuota hilaren 24an eta garilaren 6an kobratuko dira banku bidez.

Uharte Arakilgo Udalaren asmoa da igerilekuak irekitzea. Txomin Uharte Baleztena alkatearen aurreikuspena da garagartzaroaren bigarren erdialdean irekitzea, sanjoanen inguruan. Uhartek dioenez, "herritarrei zerbitzua ematea ona litzateke. Eta jasagarritasunaren aldetik ere. Zeren bakoitzak bere etxean igerilekua jartzea ez da gozoena, ur kontsumoagatik". Uharteko alkateak aurreikusten du garbitasuna indartu eta sarrearen igerilekuaren edukiera zorrotz zaindu beharko dituztela. Bi sorosle eta beste pertsona bat kontratatuko dituzte ziurrenik.

Lakuntzako Udala gaia aztertzen ari da igerilekuekin aurten zer egin. Etxarri Aranazko igerilekuak kanpinaren ardura duen enpresak kudeatzen ditu eta handik jakinarazi digutenez, gaia aztertzen ari dira. Erabakia hartu bezain laster jakinarazi dutela ere gaztigatu dute.

Urdiango igerilekua Aitziber elkarteak kudeatzen du. Zuzendaritzako kideek uste dute "aurtengo egoera berezia ikusita, ahal izanez gero igerilekuak ireki behar direla, elkarte bazkideei eta herriari zerbitzu hori eman ahal izateko". Horregatik, igerilekuak zabaltzeko betiko datak dituzte buruan: garagarrilaren akabera. Pandemiak eragindako alarma egoeraren arintzea 1. fasean sartu arte elkarte bazkideek ezin izan dute igerilekuan mantentze lanak egiteko sartu. Orduan oraindik ez zekiten zabalduko zuten edo ez. Behin zabaltzeko erabakia hartuta, udarako prestaketarekin hasi dira. Betiko lanei segurtasuna eta higie bermatzeko neurriak gehitu zaizkielarik. Horrek aldaketa batzuk egitea ekarriko die. Aitziber elkartetik jakinarazi digutenez, "Urdiango Udalak denboraldiari aurre egiteko dirulaguntza eman digu, aurten gastua handitu eta sarre-rak txikituko direlako".

LAKUNTZAN ATZO BATZARRA EGIN ZUTEN ETA ALTSASUN GAUR JAKINARAZIKO DUTE ERABAKIA

Aurreratu digutenez, igerilekuko terrazaren edukiera handitu egingen dute, beti ere, segurtasun tartea mantenduz. Horrela, ahalik eta jende gehienari eman nahi diote zerbitzua. "Guk eremu handia dugu eta aforoa murriztuta ere jendea sartzen da. Dena den eta aldaketa guztiekin ere espero dugu uda ondo joatea". Aurreko urteetan igerilekua alokatzeko nahikoa lan izan dute elkarteak. Baina aurten sekula baino lehenago alokatu dute: elkarte kide diren lau gazte urdindarrek kudeatuko dute igerilekua.

Altsasuko kirol azpiegiturak, Dantzalekuko igerilekuak barne, Atabo enpresa publikoak kudeatzen ditu. Bere kontseilua egoera aztertzen ari da eta Javier Ollo Martinez alkateak esan digunez, kontseiluak gaur jakinaraziko du zer erabaki duen.

Olatzagutiko Udala igerilekuak zabaltzeko egin beharrekoak egiten hasi da: konponketa lanak, alde batetik, eta langileak bilatzen, bestetik. Garagarrileko bigarren hamabostaldian zabaldu nahiko litzukete igerilekuak Olatzagutian. Behar bezalako zerbitzua emateko bi sorosle, atezain eta garbiketari aritzeko beste bi pertsona eta asteburuko garbiketari arduratzeko beste pertsona bat kontratatu nahi ditu udalak. Azkenik,

Ziordiko Udala gaia aztertzen ari da eta erabakia, ziurrenik, heldu den astean hartzea espero du.

BIL TOKI
TABERNA • JATEETXEA

Cure terram desbrutata!

948 467 876 • Altsasu

ETB3 ikusteko sinadurak biltzen hasi dira

Euskarazko marrazki bizidunak telebistan ikusteko aukerarik ez dago gaur egun Sakanan. Eskaerarekin bat eginen duten ibarreko erakundeen atxikimenduak jasotzen hasi dira

SAKANA

"Sakanan ere ETB3 nahi dugu". Aldarrikapen horrekin bat egiten duten gizarte eragileek eta erakunde ofizialek bere atxikimendua eman eta eskaerari indarra emateko aukera dute orain. Izan ere, ETB3rem aldeko elkarteak ibarrean bere eskaera zabaltzea erabaki du. Horretarako, Sortzeko Sakanako gurasoekin eta Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastolekin harremanetan jarri dira eta guztien artean erakunde atxikipenak jasotzeko ekimena martxan jarri dute. Dagoeneko zenbait gizarte erakundeak eta udal zerbitzuek babestu dute eskaera.

Azaldu dutenez, ETB3 2009an sortu zen eta ordura arte ETB1ean ematen ziren marrazki bizidunak kate berrira pasa ziren. Ondorioz, "Nafarroako haur gehienak euskarazko marrazki bizidunak gabe gelditu ziren". Nafarroan euskarazko haurrentzako telebista katea zati batean konpondu da Iruñerrian, Lizarran, Tafallan, Zangozan eta Tuteran ikusteko aukera dagoelako. Baina herrialdearen gainontzeko eskualdeetan ez dago ETB3 telebistan ikusteko aukerarik, esaterako, Sakanan.

Sinadura bilketaren sustatzaileek nabarmendu dutenez, "ikusentzunezkoek oso eragin handia



Haur eta gaztetxo urdindarrak plazan eserita. ARTXIBOA

dute euskararen transmisioan, eremu ez-formalean, eta ikaste-teen osagarri ezinbesteko dira. Arazoa 2009. urtean hasi zen, eta 2020. urtean berdin segitzen dugu Sakanan". ETB3 telebista katea ibarrean ikus ahal izateko ekimena sustatu dutenek nabarmendu dutenez, "Espainiak sinatutako Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak ezin du argiago esan: Espainiak bermatuko du hizkuntza horietako "irriti eta telebista emisioak moduzuzenean jasotzeko askatasuna", eta hitze-

maten du "ez duela irriti eta telebista emisioen aurka eginen (11.2 artikulua)".

ETB3 Sakanan ikustea nahi dutenek nabarmendu dutenez, "aurreko Nafarroako Gobernuak konponbide teknikoak aurkitu zuen ETB3 Nafarroa guztian ikus zedin, baina Espainiako Gobernuaren baimena behar zen, eta hark ez zien erantzun eskaerei". Horregatik, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak sinadurez babestutako eskaerak luzatu nahi dizkiote ETB3 Sakanan eta Nafarroa guztian ikus dadin.

Lizarragan San Adrian festarik gabe gelditu dira

Lizarragako Kontzejuak herriko etxeetan banatutako ohar baten bidez jakinarazi du aurten ez dela San Adrian festarik izanen. COVID-19 gaitzak sortutako pandemiak beharrezko segurtasun neurriak bermatzea ezinezko egiten dio kontzejuari eta, horregatik, lizarratarren hobe beharrez ospakizunak bertan behera geldituko dira.

Lizarragako ospakizunen egutegia inauteriek zabaldu zuten. Haiei lekukoa hartzeko ziren San Adrian festak. Baina hurrengo ospakizunaren zain gelditu beharko dute lizarratarrek: Arleze eguna, agorriaren 15ean izanen dena. San Klemente eguna, azaroak 23, aurten astelehena da, beraz, aurreko asteburuan udazkeneko festak izanen dituzte Lizarragan. Gainera, sanmigeldarrak eta sanmartindarrak ere euren ospakizunetarako elkartuko dira.

Bakaikuarrak eta iturmendiarrak Trinitaterik gabe

Bakaikuko Udalak erabaki zuen festa bertan behera uztea, "toki publikoetako osasun publikoa eta segurtasuna zaintzeko eta babesteko segurtasun neurriak betetzen direla ziurtatzea ezinezkoa delako". Erabakiak berarekin ekarri du Santa Marina ermitara joateko ibilgailuekin baimenik ez egotea, ezta bestelako baimenik ere.



Ergako Trinitatea, azken asteetan irurtzundarrek askotan bisitatu dute. ARTXIBOA

Bestelako Trinitate ospakizunak izanen dira aurtengoak

Koronabirusak ospakizunak erabat itxuraldatu dituen festak asteburuan ospatuko dira

IRURTZUN

Koronabirusak eragindako osasun larrialdia aurtengo Trinitate festak guztiz desberdinak izatea ekarri du. Hala ere, festa gogoz dauden irurtzundarrek izanen dute aukera Kultur Kontseiluak antolatutako egitarauarekin ongi pasatzeko. Etxeetako balkoiak eta festetarako bideoz elikatuko dituzten Youtubeko bi kanal izanen dira egitarauaren ardatza.

Irurtzango festak, berez, San Martinetan ospatzen ziren. Aurreko mendeko 60ko hamarkadan ospakizunaren data Trinitate egunera aldatu zuten, azaroko eguraldi txarragatik eta herriak industriarako aldaketa egina zuelako. Baina gero ikasleen ikasketendako traba suertatu ziren festak eta garilera pasa zituzten eta hilabeteko 3. asteazkenean hasten dira. Hau da, aurten garilaren 15etik 19ra lirake Irurtzango festak. Eta sanmartinak, berriz, azaroaren 11n. Ikusteko dago ospakizun horiek izanen diren.

Ikusgaiak

Irurtzango Udalak Internet bidez bideo digitalak partekatzen aukera eskaintzea erabaki du eta bere Youtube kanala sortu du. Udak kideen asmoa da Irurtzunean erlazioa duten bideoak han biltzea nahi dituenak ikus ditzan. Kultura, kirola, turismoa eta bestelako gaiekin joanen dira bilduma sortzen. Dagoeneko makina bat bideo ikus daitezke: <https://labur.eus/RWiyx>

Egitaraua

Garagartzaroak 6, larunbata

- **11:00** Trikitilari eta txistulari taldeen dianak.
- **12:00** Trinitatera kronoigoera birtuala, Guan taldeak antolatuta. Udalaren Youtube kanalean ikusgai. <https://labur.eus/RWiyx>
- **13:00** Bermut musikala zure balkoitik. Txupinazoa. Auto batek musikaz girotuko ditu kaleak.
- **20:00-22:00** Trinity dj-ren zuzeneko musika Youtuben ikusgai: <https://labur.eus/xDpgv>

Garagarrilak 7, igandea

- **11:00** Gaitarien dianak.
 - **12:00** 2.0 Erromeria: Ergako Trinitatera igotzea, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren 25. urteurrenean; Trinitatean egindako obrei buruzko solasaldia eta bertsolariak. Irurtzango Udalaren Youtube kanalean ikusgai. <https://labur.eus/RWiyx>
 - **13:00** Bermut musikala zure balkoitik. Auto batek musikaz girotuko ditu kaleak.
- Oharra:** Balkoiak, leihoak... puxikekin, zintekin eta bestelakoekin nahi bezala apaintzera animatu dituzte irurtzundarrak.



Irurtzundarrak San Martin kalean. ARTXIBOA

Herrian kontsumoa sustatzeko 3.600 txartel banatuko dira

18 urtetik gorako irurtzundarrek bana jasoko dute eta 17 establezimenduetan ehuna banatuko dituzte

IRURTZUN

COVID-19 gaixotasunaren ondorioz hainbat dendek eta zerbitzuek atekak itxi edo jarduera murriztu behar izan zuten. Irurtzunge alkate Aitor Larraza Carrerak azaldu digunez, "osasun krisiagatik kaltetuak izan diren merkataritza eta zerbitzu sektoreetan beraien aktibitatea berreskuratzeko kontsumoa sustatuko duen txartel sistema sortu dugu, erosketak bulkatzeko". Asteartean egindako bilkuran arabaki zuen udalak kanpaina aurrera ateratzea. Horretarako udalak 23.500 euro bideratuko ditu.

18 urtetik gorako erroldatutako herritar bakoitzak kontsumorako txartel bana jaso dezake. Horretarako, irurtzundarrek udaletxeko sarreratik pasa beharko dute, astelehenetik ostegunera, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Interesa duten pertsonen nortasun agiria eraman beharko dute. Guztira 1.900 txartel dira. Gainera, herriko 24 establezimenduetatik 17k bat egin dute udalaren ekimenarekin eta bakoitzak bere bezeroen artean ehuna kontsumo txartel banatuko ditu, dendan edo ostatuan bertan gastatzeko (dendaren zigilua izanen dute txartelek). Horiek ere heldu den astean banatuko dira. Zein establezimendu diren jakiteko *Herriko dendekin bat!* kartelari erreparatu beharko zaio.

Ezaugarriak

Kontsumo txartelek 15 euroko erosketa balioa dute, baina ho-

rietatik norberak 10 jartzen ditu eta udalak beste 5ak. Hau da, txartela hartuta establezimendu batera erosketa bat egitera joaten denak erosketagatik 10 euro pagatuko ditu eta gainontzeko 5 euroak udalak ordainduko ditu. Kontsumo txartela bakoitza behin bakarrik erabili daiteke eta, beti ere, kanpainari atxikitako saltokietan.

Irurtzunge Udalak jakinarazi duenez, erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko. Gainera, kontsumo txartelak ez dira eskudirutan trukatu, eta ez da inola ere balio horren zenbatekoa itzuliko. Hortaz, produktua itzultzen bada, establezimenduak balea jaulki beharko du erosketaren zenbateko osoarekin. Erosketa bakoitzeko gehienez bi txartel erabili daitezkeela zehaztu du udalak.

Erosketa txartelak hilaren 15etik garilaren 31ra arte erabili daitezke, behin epe hori pasata baliorik gabe geldituko dira. Txartelak galdu, ahaztu edo ezjakintasunagatik sor daitezkeen bestelako egoerengatik ez da txartelak edo ordaindutako kopururik bueltatuko.

3.600 txartel

Horiek Irurtzunen, guztira 54.000 euroko diru mugimendua sortuko dute.



Gizonezkoa eta emakumezkoa adinduen egoitza paretik pasatzen.

Adinduen egoitza bisitak hartzen hasi da

Egoiliar bakoitzak bisita bat hartu du eta heldu den astean, eskaeren arabera, zabaldu daiteke

ALTSASU

Aita Barandiaran adinduen egoitzara ere arintze neurriak iritsi dira. COVID-19 gaitzak eragindako pandemia orain arte arrakastaz gainditu du, 42 adinekotatik edo egoiliarretatik bat bera ere ez baitzen gaixotu. Osanlarrialdiak behera egitearekin batera, adinen egoitzako neurriak ere arindu dira. M^a Eugenia Martinez de Goñi Perez gerenteak azaldu digunez, "pandemiagatik egoitza hirutan banatu genuenez, bakoitzean bisita gune bat prestatu dugu. Beraz, aldi berean hiru bisita egin daitezke. Gainera, zorionekoak gara, egoitzak ate bat baino gehiago duelako".

Joan den astean egoiliarrek espaloian zeuden senideekin eta lagunekin izan zituzten lehen aurrez aurrekoak. Bere txikian aldaketa handia izan zen, adineko batzuk telefonoarekin edo bideo deiekinez baitira moldatzen.

Egoitza barrura bisitak aste honetan hasi dira sartzen. Martinez de Goñik esan digunez, "egoiliar bakoitzeko pertsona bat hartu dugu aste honetan. Ordu erdiko bisitak izan dira". Horretarako, bisitariak higie-neurri zorrotzak bete behar izan dituzte: sartzekoan tenperatura hartu zaie, oinetakoak eta eskuak desinfektatu, maskara jarri izan eta egoiliarrarekin bi metroko distantzia mantendu behar dute.

Bisitak 10:30ean, 11:15ean, 12:00etan, 17:00etan, 17:45ean eta 18:30ean dira. Gerenteak jakinarazi digunez, heldu den astetik aurrera bisita ordutegietan toki hutsak badaude egoiliarreko astean bisita bat baino gehiago egiteko aukera legoke. Bitartean, egoitzan dauden adinduak ezin dira kalera atera. Adinekoak lorategira eta terrazetara ateratzeko garaian langileek lagunduta egiten dute.

Iturmendiko aurrekontuak betikora bueltatu dira

Kaleak berritzeko lanak markatu dute udalaren aurrekontua eta bi inbertsio besterik ez daude

ITURMENDI

Kaleak berritzeko lanetatik joan den urtean aurrekontua bikoiztu ondoren, jarduneko udalak aurtengo 326.197,36 euroko aurrekontua onartu du. Jarduneko aldaketa Victoriano Gabirondo Lanzeak azaldu duenez, "gurea bezalako herri txiki batean hiru kaleetako lanak egiteak diruzaintza husten dizu eta inbertsio gehiago egiteko ez du uzten". Lan horiekin batera jarri nahi duten berokuntza sistemako ur beroko hodiak jarri dituzte. "Dirulaguntza eskatu genuen eta ez ziguten eman. Behar ditugu".

Gabirondok jakinarazi duenez, basoan azidarendako bi aska jarri eta ura eramateko dirulaguntza eskatu dute. "Bigarren aldia da eskaera egiten duguna. 10-15.000 euro inguruko aurrekontua luke". Bestetik, Sanpedroaldeko bidea konpontzeko 6.000 bat euro bideratu dituzte. Alkateak azaldu duenez, "bargatik jaisten den urak bideko kaskailu guztia errekarera eraman zuen. Joan den urtean drenatzea jarri genuen eta konpondutako bide zatiaren ondoan mugitu zen kaskailua eta berriro konpondu behar izan dugu". Joan den urteko lana dirulaguntzarekin egin bazuten, aurtengoa ez.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea

Eguneko menua
Ekainaren 2tik-5era

- Errusiar entsaladilla kapetan
- Leka eta patata tinbala alkatxofarekin
- Txanpiz betetako kaneloi gratinatua
- Basmati arrotza, oilasko, xixa eta sojaz salteaturik
- Quinoa barazkiekin
- Txekor karrilerak kremosoarekin
- Txerriki txilindroia
- Lubina labean egina, trigero, urdaiazpiko eta panaderakin
- Legatz albondigak, malko ilar eta almejekin
- Oilasko garagardo erara patatekin
- Sagar errea esne gainez beteta
- Esne merengatu krema
- Gure flana
- "Petit choux"-ak
- Gure mamia
- Garaiko fruta

15€ bez eta edaria bane
*Astero menu berria
Gure asmoa, zu zaintzea
Arbizuko Eko-Kanpina
Tlf. +34 848 470 922
Taberna: +34 635 093 140
Ultzu Parajea z/g- 31839 Arbizu

ON EGINI

Altsasuko auziagatik 1300 egun preso

Gaur egun horiek egin dituzte kartzelan Adurrek, Jokinek eta Oihanek. Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralak preso dauden bost gazteen 3. graduaz ebatzi zain daude. Azken atxiloketatik bi urte betetzen dira gaur

ALTSASU

Adur, Jokin eta Oihan 2016ko azaroaren 14tik daude preso eta gaur kartzelan 1300. eguna egiten dute. Atxilotu zituztenetik Espainiako Auzitegi Nazionalako epaian gertatutakoa terrorismoa ez zela jaso arte FIES edo jarraipen bereziki presoan fitxategian izan ziren hirurak, 2018ko garagarriaren 7ra arte hain zuen. 1.300 egunetan hainbat espetxetatik pasa dira: Adur Soto del Real, Aranjuez, Iruñea eta Zaballa; Jokin Soto del Real, Extremera eta Zaballa eta Oihan Soto del Real, Navalcarnero eta Zaballa.

Altsasuko auzian epaitutako Aratz, Iñaki, Jonan eta Julenek gaur 766 egin dituzte preso. Atzeneko biak Zaballako kartzelan daude, eta aurreneko biak, berriz, hirugarren graduau daude. Laurak bitan izan dira atxilotuak Altsasuko auziagatik. Aurrena 2016ko azaroaren 14an eta 32 egun egon ziren preso Soto del Realen eta Alcala Mecon. Espainiako Auzitegi Nazionalaren epaiaren ondoren, atzera atxilotu eta preso sartu zituzten, 2018ko garagarriaren 5ean, gaur bi urte. Soto del Real espetxean sartu zituzten eta 2018ko irailean Zaballara lekualdatu zituzten. Iñaki Arabako kartzelara iritsi aurretik,



Ostiraleko kontzentrazioak gaur bueltatuko dira, 20:00etan, udaletxe parera.

Iruñekotik pasa zen. Zortzigarren auzipetua Ainarra da, bi urte baino gutxiagoko zigorra zuenez, kartzelan sartu ez zena, baina hainbat kontrol neurri bete behar izan dituena.

Preso dauden bost altsasuarrendako Zaballako espetxeko zuzendaritzak 3. gradua eskatu zuen maiatza erdialdean. Eskararen inguruan bere iritzia eman behar du Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralak. Bitartean COVID-19 gaitzak eragindako pandemiagatik presoak martxoaren 2. astetik bisitarik gabe utzi ditu,

ez mintza tokian ez aurrez aurrekoak. Telefonoz eta bideo deien bidez mantentzen dituzte harremanak senide eta lagunekin. Eta gaitzaren inguruko neurriak arindu direnean probintzien artean ezin mugitzeak eragotzi dizkie bisitak jasotzea. Bestetik, Aratzek eta Iñakik gailu elektronikoa gainean dutela, ez dira kartzelara lotara joan behar izan.

Azkenik, kontzentrazioak gaur bueltatuko dira. Bilkuran maskarak jarri eta distantzia errespetatu beharko da. Elkartasun materiala ere salgai izanen da.

"Premiazkoa da preso politikoan aldeko borroka berpiztea"

Hala adierazi zuten Patxi Ruizi elkartasuna adierazteko manifestazioaren akaberan, Altsasun larunbatean

ALTSASU

Patxi Ruiz presoak gaur 26. gose greba eguna egingen du. Aurreko 12etan, gainera, egarri greba ere egin zuen. Ruizi elkartasuna adierazteko egun bateko kanpaldia eta baraualdia egin zuten

Altsasun. Larunbat arratsaldeko manifestazio akaberan adierazi zuten, "beste behin argi geratu da presoan alde borrokatzea gu guztion erantzukizun zuzena dela. Estatuek ez dute haien eskubideak errespetatzeko inongo

asmorik eta kartzelan hiltzen uzteko ere prest daude". Nabarmendu zuten, "preso politikoan eskubideen aldeko borrokan ezinbestekoa da presoan izaera politikoa aldarrikatzea". Aldi berean, "premiakotzat" jo zuten "preso politikoan aldeko borroka berpiztea, Amnistiaren aldarria ozen entzutea". Azpimarratu zuten, "preso politikoan existentzia gu guztioi eragiten digun gatazka politikoari lotuta dagoen heinean, presoan askatasuna gu guztion ardura da".



Euskal Herriko erdigunetik bidetara egiteko deia egin zuten. SARE HERRITARRA

Preso eta iheslarien egoerari irtenbidea emateko pausoak

Sarek 'Izan Bidea' ekimena martxan jarri du etxerako bidea, elkarbizitarako bidea, bakerako bidea egiteko

SAKANA

Hiriburuetan ostiralean hasi ziren bidea egiten. Sakanan larunbatean. 15 mendizalek Irañeta portutik Euskal Herriko erdigunera jo zuten. Hala bat egin zuten Sareren *Izan Bidea* dinamika berriarekin. Haren bidez lortu nahi du "preso eta iheslarien auziari behin betiko aterabidea emateko pausoak eman, jendarte aktibazioan sakondu eta herri honen aniztasun eta zabaltasuna batzea". Sarekideek uste dute "momentua orain" dela: "auzia konpontzeko aukera ireki da eta egun bizi dugun egoerak inoiz baino argiago utzi du espetxetan bizi den egoera eta salbuespen legediak dakartzan ondorio krudelak".

Sarek 3 printzipio ditu oinarri. Batetik, "gure iragan bortitz hurbilenaren ondorioak eta, bereziki, oraindik ere ehunka preso eta erbestera dituen egoera hau behin betiko gainditzea nahi dugun ibiltariak gara". Horregatik, "eragile aktibo" izateko deia egin du, "euskal preso eta erbestera guztiak etxeratze prozesua garatu ahal izateko adostasun politiko eta soziala lortu" ahal izateko. Azkenik, "elkarbizitzan eta erabateko eta behin betiko bakean oinarritutako aro berri batera eramanen gaituen bidea elkarrekin egin nahi dugun ibiltariak gara".

Ezaugarriak

Euskal Herriak dituen biztanleak adina km ibili nahi ditu *Izan Bidea* dinamika: 3.127.326. Kilometro

horiek guztiak egitearen xedea da "bidea egitea; etxerako bidea, elkarbizitarako bidea, bakerako bidea". Km-ak zenbatzeko Sarek telefono mugikorrendako aplikazioa sortu du (Android sistemarako). Hura deskargatu, izena eman eta km-ak ibiltzea da proposamena. Aplikazioa www.labur.eus/appizanbidea webgunetik deskargatu daiteke. Bestelako jarduerak ere km-ak bihurtuko ditu aplikazioak: antola daitezkeen zumba maratoiak, dantzaldiak edota kamiseta janztea bera.

Sarek herritar guztiak "ibiltari izatea" nahi du, norbanako moduan edo era kolektiboan. Sarekideek diotenez ekimenak balioko du "dagoeneko saretzen ari diren adostasunak era ikusgarriago batean plazaratzeko". Horregatik, parte hartzeko deia egin diete "bakearen eta bizikidetzaren bidea egin nahi duen edonori. Guztiok norabide berean egin dezakegu".

Bilkurak bueltan

Euskal preso eta iheslariak etxera kontzentrazioak.

Lakuntzan, Arbizun eta Etxarrin ostiralero
• 20:00etan plazan.

Altsasun igandero
• 20:00etan plazan.

Udalak aparkaleku berriko lanak eman ditu

Erkuden eta Bakea kaleen artean dagoen etxartean eginen da. Udalak eta Altsasuko Dendarien Elkarteak ibilgailuek herrian aparkatzeko dituzten guneei buruzko informazio kanpaina eginen dute

ALTSASU

Altsasuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak gaur egindako bilkuran bi lan ematea erabaki du. Alde batetik, Erkuden eta Bakea kaleen arteko orubean ibilgailuendako aparkaleku publiko berri bat egiteko lanak Lacunza Hermanos S.L. ematea erabaki du. Enpresak aparkalekua egiteko bi hilabete izanen ditu eta haien truke 110.783,75 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu. Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi digunez, lanak laister hasiko dira.

Aipatu partzelan 66 ibilgailuendako aparkaleku publikoa eta behar bereziak dituztenendako beste hiru plaza egokituko dira. Urbanizazio lan horietaz aparte, etxeen inguruan espaloi perimetral bat izanen da, oinezkoek sarbide segurua izateko. Gainera, eraikinetako argi sare publikoak eta euri urak biltzeko sareak espaloiaren azpitik pasazaziko dituzte, baita aparkalekuko euri urak biltzeko sarea jarzeteke ere.

Baso-lanak

Tokiko Gobernu Batzarraren gaurko bileran erabaki da aurtengo baso lanak Apezetxea Anaiak, S.L. enpresari ematea 43.864,40 euroren truke (BEZ



Osasun etxeako eta San Juan kaleko ondokoen ondoren, 3. aparkalekua izanen da.

kanpo). Udalak Nafarroako Gobernuaren 31.366,48 euroko dirulaguntza jasoko du. Aurreikusitako lanen artean daude, bate-tik, Zezenagako pinuditik baso aprobetxamendua ateratzeko Azunzarten pista berria egitea, baso lanetako enpresek Usolarraingo eta institutu edo ikastolako bideak ez erabiltzeko, ibilgailu eta oinezko asko baitabilbertan. Bestetik, Arkurutzetaz gainen bidearen zati bat konponduko da basora sarbide hobe izateko, handik urte baterako etxerako egur loteak ateratzeko

aukera izanen baita, 500 metro kubiko inguru.

Aldi berean, Balankalekuko eta Torretxikiko pistetan hobekuntzak eginen dira. Inguru horretan hurrengo bi urteetan pago baso aprobetxamenduak salduko dira eta salmenta egokia izan dadin bideak ongi egotea komeni da. Marmolazpi eta Torretxiki pistei dagokienez, etxe-ko egurretarako loteak 7 edo 8 urtez egiteko aukera dago bakanketen bidez, horretarako sarbidea erraztu behar zaie altsasuarrei.

Gazteria Zerbitzuak berriemaileen lana eskertu du

Ikasturtean zehar Intxostiapunta gazte gunearen eta gazteen artean zubi lanak egin dituzte

ALTSASU

Ikasturte honetan Intxostipunta gazte gunearen eta gazteen arteko zubigintzan zortzi berri emaita aritu dira. Haien egitekoa izan da gazte gunearen jardunari eta gazteendako intereseko diren

berriei buruzko informazioa zabaltzea lagunen artean eta beraien ikastetxean. Horretarako, ikastetxeak eta sare sozialak erabili dituzte. Berriemaileek diploma bana eta saria jaso zuten maiatzaren 22an.

Blanki Torres gazteria teknikariak berriemaileen "inplikazioa, parte hartzea eta kolaboraziorako jarrera nabarmendu ditu. Izan ere, hilabete hauek zailak izan arren, taldekide guztiek ilusioari eta konpromisoari eutsi diote maiatzaren akaberara arte". Torresek gaztigatu duenez, berriemaileen programak segida izanen du, "balio handiko esperientzia izan dela uste baitugu, bai maila pedagogikoan, bai Gazteria Zerbitzuaren helburu asko lortzeko ere".



Bi emakumezko Kale Nagusian.

Kale Nagusian asteburuan oinezkoak nagusi

Oinezkoendako da ostiraleko 15:00etatik asteleheneko 08:00etara, autoak Uhalde eta Errekondo kaleetatik

ARBIZU

Joan den urtean lanak egin eta gero, Arbizuko Kale Nagusia guztiz itxuraldatu zen. Lanak despeditzean Arbizuko Udalak erabaki zuen eremu publikoa erabiltzeko arau batzuk ezartzea, "eremu publikoa behar bezala erabiltzea denon onurarako delako". Arbizuko Udalak erabaki zuen oinezkoak lehenestea, haien mugikortasuna bermatzeko eta, ondorioz, ibilgailuen erabilera mugatzea. Guztia "kaleen erabilpen osasuntsuago eta orekatuago lortzeko asmoz".

Onartutako arauen arabera, Arbizuko Udalak oinezkoen lehenetasuna eman die Kale Nagusian, "zebrabide erraldoi bat balitz bezala". Horrek ekarri du herriko zeharbidean ibilgailuek ezin dutela 20 km orduko abiadura gainditu. Hilabete hasieratik lastailera arte, bost hilabetetako asteburuetan Kale Nagusia itxi

egiten du udalak, eskola zaharren eta Errekondo kaleen artean. Ibilgailuek Uhalde eta Errekondo kaleak erabili behar dituzte. Jakina, ibilgailuendako soilik egokitutako tokietan bakarrik aparkatu daiteke. Gainera, udalaren baimena ez duten 3,5 tona baino gehiagoko kamioiek ezin izanen dute Kale Nagusian ibili.

Azkenik, Arbizuko Udalak jakinarazi zuen espaloiaren ezin direla ez loreontziak ez bestelako elementuak jarri, "espazio publikoaren okupazio pribatua ekidite aldera. Behin behineko egon daitezkeen elementuak udal baimena eta dagokien zerga ordaindu beharko dute: aldamiok, terrazak, kontainerrak..." Udalak zehaztu zuenez, "gehiengoaren ziurtasuna eta ongizatea kaltetzen duten arau urraketek zigorrak ekarriko dituzte".

Bestalde, udala jolas parkeak egokitzen ari dira.

Azoka Zumalakarregin

Altsasuko Udalak behin behineko konponbidea hartu du azokako 47 postuak kokatzeko: azoka bitan banatzea, lortia zabalgunean eta Baratzeko Bide plazan elikagaiak eta Zumalakarregi plazan arropa, zapata eta bestelako produktuak. 12 urteren ondoren bueltatu zen azoka Zumalakarregi plazara. 1991 eta 2008 artean urtero handik Alde Zaharrera eta buelta ibiltzen zen.



Zelandik ekainaren 15ean irekiko ditu ateak

KIROLDEGIA Beharrezko segurtasun neurriak hartuta, Altsasuko Zelandi kiroldegiak ohiko ordutegian zabalduko ditu ateak. Bestalde, Arbizuko kiroldegia noiz eta nola zabalduko duten oraindik ez dute erabaki

Altsasuko Zelandi kiroldegiak ekainaren 15ean zabalduko ditu ateak. Kiroldegia kudeatzen duen Atabo Altsasu S.L. enpresako presidente Idoia Ibañez de Opaquak sinatzen duen komunikatuan eman dute erabakiaren berri. Komunikatuan jasotzen denez, COVID-19 birusak sortutako osasun krisiak eragindako geldialdiaren ondoren, ekainaren 15ean zabalduko dira Zelandiko kirol instalazioak, ohiko ordutegian (astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 22:00etara, larunbatetan 09:00etatik 20:00etara eta igandeetan 09:00etatik 14:00etara).



Zelandiko igerilekua. ARTXIBOA

Zalantzak argitzeko

Egon daitezkeen kezka eta galdera guztiak argitzeko, aste honetan erabiltzaileek posta elektronikoz bidalitako kontsultak erantzun ditu Zelandi kiroldegi-ko zerbitzuak (harrera@ataboaltsasu.com), eta ekainaren 8tik aurrera, telefono deiei ere erantzungo zaie (948 56 27 86).

Segurtasun neurriak

Zelandiko kiroldegiaren zerbitzu segurua eta arduratsua eskaintzeko, gimnasioko errutinak hiru gela desberdinetan garatuko dira, gomendatutako distantziak errespetatuz. Horrela, 1. aretoan indar

eta kardio makinak egongo dira; 2 eta 3 aretoetan halterak, barrak eta bankuak eta spinning aretoan, berriz, bizikletak eta arraunketa makinak egongo dira.

Igerilekuari dagokionez, Zelandiko langileek igerilekuen aforoa kontrolatuko dute etengabe, beharrezko distantziak bermatzeko.

Aipatzekoa da ere harrerako langileek sarbidea mugatuko dutela, 3. faserako eta "normaltasun berrirako" adierazitako edukiera gaindituz gero.

Bukatzeko, gimnasioan, igerilekuan eta aldageletan garbiketarak eta desinfekzioak egiteko ordu tarte jakin batzuk erreserbatuta egongo dira.

Arbizun ez dago datarik

Arbizuko kiroldegiak ateak noiz zabalduko dituen galdetuta, oraindik noiz izanen den eta nola ez dakitela erantzun dute Arbizuko Udaleko ordezkariak. Egoera behar bezala aztertzen ari dira.



UTZITAKOIA

Trinitateko kronoigoera birtuala

MENDI LASTERKETAK Osasun krisian gaudenez, Irurtzungo Guan taldeak Trinitatera Kronoigoera berezia egingen du aurten. "Bideo bat egin dugu, proba nola antolatzen dugun azaltzen duena eta korrikalarien iritzia jasotzen duena. Bihar, larunbatean, 12:00etan jarriko dugu ikusgai Irurtzungo Udaleko Youtube kanalean" azaldu du Roberto Martilek.

ARETO FUTBOLA Play-offak uztailean jokatzeari uko egingo dio Xotak

Osasuna Magna Xotako presidente Tatono Arregik azaldu du Osasuna Magna Xotak aurtengo titulua erabakitzeko play-offak jokatzeari uko egingo diola play-offak uztailean jokatzeko badira. Jokalarien kontratuak ekainean bukatzen dira, 6 jokalarik utziko dute talde berdea eta jokalaria horietako askok ez dituzte play-offak jokatu nahi, lesioen beldur. "Gure kasuan, 6 futbolarik esan digute uztailean ez dutela jokatuko" adierazi du Tatono Arregik. Talde berdean nahiago dute play-offak abuztuan edo irailean jokatzea. Bestalde, Xotak bi jokalarik gazte fitxatu ditu hurrengo denboraldirako, Cesar Velasco eta Dani "Zurdo" hegalak.

GEZU BARRAK

BORROKATU DITZAGUN

**KOMUNIKAZIO
PROFESIONAL ETA
ARDURATSU BATEKIN**

**KOMUNIKAZIO ENPRESEK
BADAKITE NOLA**

LAASOCIACION.COM

LAASOCIACIÓN

Komunikazioaren aroan



Uztailaren 1ean itzuliko da pilota profesionala

PILOTA Irungo Uranzu frontoiak bi enpresetako pilotariak osatutako jaialdi mistoa hartuko du

Uztailaren 1ean itzuliko da pilota profesionala, asteazkenarekin, Irungo San Martzialetan. COVID-19 birusak guztia gelditu zuenetik lehen jaialdia izango da Irungoa. Aspe eta Baiko enpresak eta Irungo Udala harremanetan daude jaialdiaren nondik norako guztiak aztertzeke eta berme guztiak eskaini ahal izateko, baina bi gauza aurreratu daitezke: ez da atek itxita jokatu, ordurako aforoaren %50 betetzeko aukera egongo delako, eta bi enpresetako pilotariak osatutako bikote mistoek jokatu dute.

Martxoaren 8an jokatu zen pilota profesionaleko azken partida, Binakako Txapelketakoa, eta 3 hilabete eta 3 aste beranduago bueltan da pilota profesionala.

Hurrengo astean taldeka

Bitartean, pilotariak Aldi Baterako Lan Erregulazioan jarraitzen dute, baina enprekin elkartuko dira egoera aztertzeke. Bestalde, hurrengo astetik aurrera taldean entrenatzeko aukera izango dute pilotariak. Horrela, konfiantzako teknikariekin behar bezala entrenatzeko aukera izango dute pilotariak, eskertuko dutena.

ATLETISMOA Ergoienako Bira bertan behera uztea erabaki dute

Ergoienako Udalak, maiatzaren 27an egindako batzarrean, COVID-19 birusak sortutako pandemia dela eta aurtengo antolatutako zenbait ekitaldi bertan behera uztea erabaki zuen. Tartean dago irailean jokatzekoa zen Ergoienako Bira. Aurreko urtean Joxe Mari Mercero korrikalari beterano zena omendu zuen Ergoienako Birak.

"Frontoira bueltatzeak pozten nau gehien"

PILOTA AMAIA JAKA PILOTARIA

Ekainaren 26an Binakako Emakume Master Cup Txapelketako Pilota Goxuko finalerdia jokatu du Amaia Jakak Eneritz Arrietarekin, Galeano ahizpen kontra

Maidar Betelu Ganboa IHABAR

COVID-19 birusak sortutako osasun krisiak eragindako geldialdiaren ondoren eskuzko pilota bueltan da. Kantxetara itzultzen lehenak emakumeak izango dira. Hain zuzen ere, ekainaren 26an Binakako Laboral Kutxa Emakume Master Cup Txapelketako Pilota Goxuko finalerdia jokatu dira Elgoibarren, eta Amaia Jaka ihabardarrak eta Eneritz Arrietak Nagore eta Leire Galeano ahizpak izanen dituzte aurkari. Amaia Jakak Emakume Master Cup Lau eta Erdiko Pilota Goxuko finala irabazi zuen azaroaren 30ean Otxandion, eta Binakako finalerako sailkatzea denboraldia borobiltzeko aukera paregabea litzateke.

Eskuzko pilota modalitatean kantxara bueltatutako zaretan lehenak emakumezkoak izango zarete.

Bai, oraingoa hala dirudi (kar, kar...). Binakako Emakume Master Cup Txapelketako Pilota Goxuko finalerdia martxoaren 14an jokatzekoak ginen, Elgoibarren, birusarengatik guztia gelditu zenean. Eta orain albista da finalerdi horiek ekainaren 26an jokatu ditugula, Elgoibarren. Finalerdia ETB1ean ikusi ahal diredira ere jakin dugu. **Eneritz Arrietarekin osatzen duzu bikotea. Final laurdenetan Uxue Larrea eta Lierni Gartziaarena utzi zenituzten bidean (18 eta 1) eta favoritoen artean zaudete. Baina geldialdi honekin nola zaudete? Nola entrenatu duzue?**

Hasieran arraroa izan zen egoera, ez frontoi faltagatik, batez ere gorputza etxe barruan erabat aldatzen delako. Nik zortea izan dut Ihabarren lorategi nahiko handia daukadalako eta azkenean ez naiz gelditu. Anaiarekin ariketak egin ditugu, spinning bizikleta ere badugu eta kirola egiteari ez diot utzi. Bi aste daramatzat Ihabarko frontoira joaten. Alde horretatik ongi eraman dut



Amaia Jaka, eskuinean, Eneritz Arrieta alboan duela. EMAKUME MASTER CUP

"PARTIDA BAT JOKATU GABE HORRENBESTE DENBORA EGON ONDOREN, USTE DUT ONGI PASAKO DUDALA"

konfinamendua, ez dut arazorik izan kirola egiteko. Bai eskuak egiteko, baina uste dut hemendik aurrera poliki-poliki eskuak egiten joango garela.

Ettxeko entrenamenduak mantenu lana dira gehienbat; frontoiko entrenamendu falta nabaritu duzue.

Bai, azkenean nabaritzen da. Frontoian ibili gabe egon eta gero, bertan lanean hasi eta bat-batean mugimendu horiek nahiko gogorrak egiten zaizkizu; izan ere, horrek ez du zerikusirik lorategian ariketak egitearekin. Gutxienez fisikoki mantentzea, hori zen asmoa konfinamenduan. Orain kaxotxen artean "normaltasuna" bueltatu denez, pixkanaka, pazientziarekin, gora egitea da asmoa.

Eneritz Arrieta gipuzkoarra da. Noiz entrenatuko duzue elkarrekin?

Ba nik uste dut elkar ikusiko dugun lehenengo eguna finaler-

dietakoa izango dela. Kontua ez da horrenbeste Eneritzekin entrenatzeko aukera ez izatea, baizik eta pilotariren batekin entrenatu ahal izatea. Ez da berdina bakarrik edo anaiarekin pixka bat entrenatzea edo bi biko elkarren artean entrenatzea. Azkenean entrenamenduak barka egin ditugu eta nik uste hori jokoan nabaritu dela.

3. fasean sartuz gero beste biko batekin entrenatzeko aukera izango duzue?

Momentuz ez ditugu entrenamenduak antolatatu, ea zer dioten eta aukera baldin badugu nik uste dut entrenamendu serio bat egin beharko genukeela gutxienez nafar pilotariak. Ikusiko dugu.

Nafarroako Pilota Federaziotik berririk jaso al duzue?

Federaziotik momentuz ezer ez. Dakigun bakarra da frontoi libreetan aritzeko aukera dugula eta nahiko, gutxi gehiago.

COVID-19 antzemateko testa egin beharko duzue? Hartu beharreko segurtasun neurriez informaziorik eman al dizuete?

Ateak itxita jokatu dugula esan digute, ikuslerik gabe, eta beraiek jarriko dituztela beha-

rezko neurri guztiak. Hori da esan digutena. Neurri horiek zehazki zeintzuk diren oraindik ez dakigu, guztia antolatzen da biltzalako, baina segurtasuna bermatuko zutela ziurtatu ziguten; alde horretatik lasai nago, egia esan.

Publikorik gabe jokatzeko arraroa izango da, ez? Orain arteko Emakumezkoen Master Cup Txapelketak oso jendetsuak izan dira, jende asko joan da zuek animatzera...

Bai, egia esan, giro bikaina egon da frontoietan. Alde horretatik desberdina izango da. Pilotazaleak frontoian badaude, horrek bizitasun hori ematen dizu, baina holaxe jokatu beharko da, jenderik gabe, eta gustura, egoera honetan ezin delako gehiago eskatu. Ea guztia zer moduz doan. Disfrutatzea aterako gara; partida bat jokatu gabe horrenbeste denbora egon ondoren, uste dut ongi pasako dudala.

Nagore eta Leire Galeano ahizpa antzuolarrak dituzue arerio. Nola aurreikusten dituzu finalerdia?

Gazteagoak dira, egun batean lanean ikusi nituen eta oso biziak iruditu zitzaizkidan. Partida gogorra dugu aurretik, nik uste. Badakit atzelaria ezkertia dela eta hori arraroa egingo zaidala; partida gogorra aurreikusten dut.

Zuk ere min asko egiten duzu ezkerrekin eta lehia pilota izango da. Ahizpak izanda akaso asko entrenatuko dute; horrek abantaila emango diela uste al duzu?

Azkenean guztiak eragina dauka, eta ziur nago duten harreman hori nabaritu dela. Baina bakoitzak bere egoera bizi izan du konfinamenduan. Nik zortea izan dut entrenatzeko espazio zabala izan dudalako, eta ziurrenik beste askok euren pisutik ezin izan dutela atera eta beste askok arlo fisikoa lantzeko ere zailtasunak izango zituztela. Hau da, nik uste dut guztiak antzeko gaudela, batzuk gauza batzuekin eta besteak beste batzuekin. Dagoenera egokitu beharko dugu. **Ekainaren 26ra bitartean zein da helburua? Ahalik eta gehien entrenatzea, finalerdia behar bezala prestatzeko?**

Bai, entrenatzea. Frontoian ibiltzeko asmoa dut.

Frontoietan bizi dago, hori da garrantzitsua.

Bai, hori da; ea gutxinaka berriro hasten garen.

Zorte on!

Eskerrik asko!



Txirrindulariak joan den urteko juniorren Altsasuko Erramu Trofeoari ekiteko prest. Aurten bertan behera geratu da proba. ARTXIBOA

Txirrindularitza atzerakontuan?

TXIRRINDULARITZA Nafarroako, Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak lasterketak itzultzeko lanean dabilta baina oraindik egutegia airean dagoela adierazi dute Burunda eta Aralar Txirrindularitza Taldeek

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

COVID-19 birusak ekarritako osasun krisiak eta Espainiako Gobernuak erabakitako alarma egoerak aurrera jarraitzen dute, baina konfinamendua arintzeko neurriek aldaketak ekarri dituzte eta gutxika bada ere, txirrindularitza mugimendua sumatzen da. Txirrindulariak errepidera bueltatu dira entrenatzera eta badirudi txirrindulari lasterketak bueltatzeko atzerako kontaketa martxan dela.

Nafarroako Txirrindularitza Federazioko webguneko lasterketen egutegian sartuz gero, ekainaren 14ra bitarteko lasterketak bertan behera edo atzeratuta daudela jasotzen da, baina epe horretatik aurrerako lasterketak aurreikusitako moduan iragartzen dira. Dena den, lasterketa horiek eginen diren oraindik ez dago ziurtatzerik.

Mugimenduak

Sakana Group-Aralar Txirrindularitza Taldeko jubenilen taldeko Eddi Cerviño entrenatzaileak aipatu duenez, egutegia oraindik airean dago, baina federazioak "mugitzen" ari dira. "Oraindik ez digute data eta lasterketen berri zehatzik eman, baina Nafarroako Federazioa ekainaren bukaeratik aurrerako lasterketak antolatuko dituzten klubei galdezka ari da. Entzun dugu ekainaren 28an Tafallak emakumezkoen lasterketa antolatuko baiezkua eman duela, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako

"ORAINDIK EZ DIGUTE DATA ZEHATZIK EMAN, BAINA FEDERAZIOAK MUGITZEN ARI DIRA"
EDDI CERVIÑO

federazioak ere martxan hasi nahi dutela. Gutxika, baina mugimendua nabari da" azaldu du.

Hala ere, oraindik ez dago erabaki zehatzik. "Federazioak denboraldia hasteko baimena ematen dutenean hasiko dira lasterketak, baina arazoa da ez dakigula noiz izanen den" dio Burunda klubeko Gorka Mintegik. "Guztia airean dago. Alarma egoera ekainaren 21era arte luzatzen badute –asteazkenean hala erabaki zen–, beranduago izanen da lasterketen hasiera. Denboraldia hasi nahi dute, baina ez dakigu non, noiz eta garrantzitsuena, nola burutuko diren lasterketak. Ez dugu zehaztasunik" gaineratu du Burundako idazkariak.

Txirrindulariak animatu

Sakana Group-Aralarren nagusienak taldeko entrenamenduekin hasi dira berriki. "Konfina-

mentuan erroldillo edo arrabolarekin aritu dira lanean, eta bideokonferentzia bidez elkarrekin aritzen ginen entrenatzen, txirrindularien arteko lotura mantentzeko eta taldea egiteko. Gero bakarka hasi ziren ateratzen, hasieran bakoitza bere herrian, eta ondoren distantzia luzeagotan. Eta gero talde txikietan. Beharrezko neurriak hartuz, hor gabilta" adierazi du Eddi Cerviño. Txirrindulariak motibatzen eta animatzen saiatzen da. "15 lasterketa badira, 15 izango dira. Eta ezinezkoa bada, hurrengo urterako entrenatuko dugu. Hori da mutilei esaten diedana. Beraiek animatzea funtsezkoa da" dio. Entrenatzaile lakuntzarrak aurreko proba batzuk jokatu direlakoan dago. "Bizpahiru astetan jakingo dugu" dio.

Burunda Txirrindularitza Taldeko txirrindulariak bere kabuz ari dira entrenatzen. "Taldekako entrenamenduetan ez gara hasi. Eguntan bilera egingo dugu, gutxienez kadeteekin eta jubentekin taldeko lana hasteko erabakia hartzeko" aipatu du Gorka Mintegik. Lasterketa asko kolokan egon daitezkeela uste du Mintegik. "Eskolen mailako lasterketak antolatzeko ez dago arazo handirik. Nafarroako Federazioarekin bilera bat egon zen eta aipatu zuten txikienean probak antolatzeko baimena jasotzerakoan, akaso egutegia hasieratik berrartu daitezkeela, eta urriraino luzatu. Ez dakigu zer gertatuko den. Arazo nagusia kadeteen eta jubentien mailako lasterketekin dago. Asko herrietako festetan antolatzen dira, eta festarik ez badago, udalek lasterketei eusteko ahalegina egingo al dute? Lasterketetarako dirulaguntza mantenduko al dute? Dena airean dago" nabarmendu du idazkariak.

Burundaren aurkezpena, airean

Sakana Group-Aralar taldeak martxoaren 8an egin zuen denboraldiko aurkezpena, Aralar San Migel santutegian, hain zuzen ere alarma egoera zehaztu baino aste bat lehenago. Burunda taldeak aurkezpena beran-

"DENBORALDIA HASI NAHI DUTE, BAINA EZ DAKIGU NON, NOIZ ETA NOLA EGINGO DUTEN"
GORKA MINTEGI

duago egitea aurreikusia zuen, aurten maillot berriak mustu behar zituztelako eta materialaren zain zeudelako, eta oraindik ez dute aurkezpenik egin. "Kadete eta jubent mailatan Quesos Albenizek jarraitzen du babesle nagusia izaten, eta eskoletan Katealde eta La Tasca de don Jose babesleei laguntzaile berriak gehitu zaizkie: Quesos Albeniz eta Garaje Urbasa. Horregatik maillot berriak prestatu ditugu, baina ezin izan ditugu aurkeztu. Denboraldia hasten bada aurkezpena ere egin beharko dugu" dio Mintegik.

Okerrena, ezjakintasuna

Aurtengoa denboraldi arraroa izango dela ezin daiteke ukatu. Federazioek zer erabaki eta zer gerta, "horren esperotan" daudela diote Cerviño eta Mintegik. Nolanahi ere, helburu "berberak" dituela nabarmendu du Cerviño. "Urteroko helburu berberak dira gureak, gazteek txirrindularitza disfrutatzea eta ikastea. Aurten jubent mailan sekulako taldea dugu, eta denboraldia jokatu gabe geratuko balitz mutilengatik izango nuke pena, azken urteko jubentengatik bereziki. Uste dut 15 eguneko epean jakingo dugula denboraldia hasia izango dugun ala ez" azaldu du Cerviño. "Ezer ez jakitea, hori da okerre txirrindulariendako. Entrenatzen ibili dira, arrabolan hasieran, errepideetan gero, ahal duten moduan, baina ezjakintasun hori gainean dutela. Ziurrenik denboraldia hasiko da, baina zehaztasunik gabe" gaineratu du Mintegik.

Lakuntzako Emakumezkoen

Lasterketa, bertan behera

Aralar Txirrindularitza Taldeak emakumezkoen lasterketa zuen iragarria ekainaren 27rako Lakuntzan. Pasa den asteburuan klubak bilera egin zuen eta proba bertan behera uztea erabaki dute. "Gauden egoeran egonda, gehienei iruditzen zitzaion data gertuegi dagoela emakumezkoen afizionatuen, eliteen, jubentien eta kadeteen mailako lasterketa bat antolatzeko. Maila horretako proba izanda eskakizunak handiak dira, eta ez zen ikusten proba behar bezala prestatzeko nahikoa tarte eta baldintzak daudenik" azaldu du Aralar Taldeko Eddi Cerviño. Ikusiko dugu gainontzeko lasterketekin zer gertatzen den.



Olaztiko liburutegia pandemiaren ondorengo garaian.

Liburutegiak pandemiaren kontra

Konfinamenduak entretenitzeko modu berriak ekarri ditu, hala ere, liburutegiak herrietako erdigune garrantzitsuak izaten jarraitzen dute. Hausnarketarako garaiak direla esan du Eduardo Mayordomo Olaztiko liburuzainak

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

"Ez dago liburutegi bat bezain txerto hoberik pandemia honen eta etorriko diren pandemia guztien aurka" Frederick Wiseman dokumental zuzendari ospetsuaren hitzak dira, Espainiako hedabide batean egindako elkarrizketa batean. Wiseman Ex libris. *The New York Public Library* dokumentalaren egilea da, eta bertan liburutegi publikoen helburuak proposatu zituen. Dokumentalean liburutegiak gizarte politika zein kultura politikaren zati garrantzitsu bat direla ondorioztatu zuen, baita pertsona ahulenak hezkuntzaren bidez laguntzeko lekuak direla ere.

"Agian gehiegi esatea da. Pandemiaren aurka egiteko hobere-na kalitatezko osasun publikoa izatea da". Eduardo Mayordomo Olaztiko liburutegiko liburuzaina da: "Batzuetan guk bai esaten dugu liburutegiak geroz eta inportanteagoak direla eta, bai, garrantzitsuak dira, baina pandemiaren erdian osasun zerbitzuetako langileak askoz garrantzitsuagoak izan dira". Pandemiarako "txertoa" baino, liburutegiak hezkuntza eta kultura sustatzeko guneak direla uste du Mayordomo. "Fake news edo albiste faltsu pila bat izan ditugu eta jendeak sinesten ditu. Libu-

rutegiak ez dakit egia eta gezurra desberdintzen laguntzen duten, baina gauza serioak lantzeko eta eztabaidatzeko toki bat dira". Mundua ulertzen saiatzeko toki bat da liburutegia.

Martxotik "denbora asko pasatu" dela dio Mayordomo, eta oroitzapen batzuk denborarekin desagertu dira. Baina martxoko egun horietan giroan "beldurra" nabaritzen zela esan du: "Leku guztiak ixten hasi ziren, eta liburutegiak gizartearen beharrezkoak diren arren, garrantzitsuagoa izan zen birusa gehiago ez zabaltzeko ixtea, baita gure osasunagatik ere". Egoera "arraroa" zen. Liburutegien zein bestelako eraikin publikoen itxierak ezustean harrapatu zituen herritar asko, beraz, ezin izan zituzten nahi bezain beste liburu etxera eraman. Hala ere, baziren egoera aurreikusitakoak ere: "Azken egunetan jendeak galdetzen zuen ea liburu bat gehiago hartu zezakeen. Normalean bi edo hiru liburu eramaten dituzte, gehienez hiru, baina jendeak gehiago es-

"MUNDUA ULERTZEN SAIAZKEKO TOKI BAT DA LIBURUTEGIA"

EDUARDO MAYORDOMO
OLAZTIKO LIBURUZAINA

katzen zituen". Izan ere, Mayordomo aitortu bezala, "irakurzaile garenok kostatzen zaigu mahaian liburu bat ez izatea. Faltan botatzen dugu".

Konfinamendua luzatzen zen heinean, irakurtzeko liburuak bukatzen hasi ziren: "Hainbat pertsona etorri dira esanez libururik gabe gelditu direla". Etxeetako liburu ahaztuen loraldia izan da, beraz, liburuzainak azaldu duenez: "Klasikoak irakurtzeko ongi etorri da. Gurasoek garai batean erosi zituzten liburu horiei bigarren aukera emateko". Bestetik, jendeak ere liburutegiko liburuak elkarbanatu dituela azaldu du liburuzainak: "Libururik gabe gelditzen zirenez, ez dakit nori utzi diotela esaten didate". Beste batzuk, liburu elektronikoetara salto egin dute, egoerari aurre egiteko, "baina fisikoak nahiago dituztela esaten didate".

Egoera berria

Nafarroako liburutegiak astelehenean ireki zituzten. Momentuz, liburuak, filmak zein CDak maileguan hartzeko eta etxean daudenak itzultzeko aukera baino ez dago. "Denborarekin" beste zerbitzuak eskaini ahal izatea espero du Mayordomo: ikasteko aretoak, hurren txokoak eta abar. Li-

buruak itzuli ondoren 14 eguneko berrogeialdia pasa behar dute, liburutegian sartzeko maskarak jarri behar dira, baita eskuak garbitu ere, eta pertsonen arteko distantzia mantendu behar da.

Koronabirusak sortutako egoera honek aisialdirako eta entretenimendurako modu berriak ekarri dituela uste du liburuzainak, eta liburuzainek zein kultur eragileek honen inguruan hausnartu beharko dutela esan du. Aspaldi duten eztabaida da, baina "konfinamenduak egoera azkartu du". Uda pasata eta egoera baretzen denean, udazken aldera, bilduko direla aurreikusi du Mayordomo. "Gure erronka eta gure etorkizuna herrietan kultura proposamenak sustatzean dago. Orain ematen ditugun zerbitzuak eta maileguak ez ezik,

saiatu behar gara liburutegiak kultura zabaltzeko eta kulturaren inguruan biltzeko tokiak izatea". Liburutegiak kultura zabaltzeko eta indartzeko "leku aproposak" direla esan du, eta "gizarte osoaren" inplikazioa eskatzen du. "Herriek pilotalekuak, igerilekuak eta liburutegiak dituzte. Herriko toki garrantzitsu bat da. Irakurtzeko, ikasteko edo elkartzeko toki bat".

Olaztiko liburutegian, esaterako, koronabirusak Etxeberria zerrategiaren inguruko hitzaldi "oso interesgarri" bat zapuztu zuen. "Dena prest geneukan, Iruñeko gizon bat topatu nuen horren inguruan asko dakiena eta bat-batean hau gertatu zen. Pena bat da". Udazkenean kultura proposamenekin hasiko direla esan du: "Erakusketak, hitzaldiak...".



BAZTERRETIK

EDURNE LARRAZA MENDILUZE

Goazen sandaliak erostera!

Hauek komeriak! Ditxosozko COVID-19-ak etxealdian sartu gintuen udaberriaren hasieran, oraindik udaberriaren ginelan konturatu gabe geundela eta atera garenako ia uda dugu gainean! Galtza motzak, tirantedun kamiseta eta sandaliak jantzi nahi izan ditut, baina iazko sandaliak txikituta daude, ezin dira erabili!

Zapata dendara iritsi naiz eta gustuko sandaliak aurkitutakoan dendariarengana joan naiz poz pozik nire zenbakiaren bila. Kontua da zapataria erabat desesperatuta aurkitu dudala. Zapata kutxa bete palea zeukan parean. 100 zapata kutxa bata bestearen gainean pilatuta.

- Kutxa bakoitzean zein zenbaki den jartzea ahaztu egin zaie. Hau lana! Kutxa bakoitza ireki eta zenbakia jarri beharko diot apaletan jarri aurretik! Itxoin beharko duzue. - Esan digu. - Poz bakarra da behintzat kutxak ordenaturik daudela badakidala. Goian txikiak eta azpian handienak.

Buruari ongi eragin eta gero proposamena bota diot zapatariari:



- Eta nire zenbakia aurkitu bitartean lagunduko banizu, aurkitutakoan nireak eraman ahal izango ditut? - Galdetu diot nik.


- Bai, noski!
Segituan jarri naiz lanean. Noski, nire zenbakia lehenbailehen aurkitzeko asmoarekin. Ez dut ahaztu behar kutxak ordenaturik daudela eta azpian dagoela zenbakirik handiena eta goian txikiak.

Nire zenbakia topatu aurretik, zenbat kutxa ireki eta zenbakitu beharko dut gehienez, ahalik eta kutxa gutxien ireki nahi baditut?

Badakizue, emaitza ostiralean <https://guaixe.es/komunitatea/EdurneLarraza> helbidean.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 5




Larunbata, 6



Igandea, 7



Astelehena, 8



BAZKIDE ZOZKETA

EKAINENKO SARIAK

1. SARIA:

EKAINBERRIKO KOBAZULOAK: 2 sarrera

ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua

LACTURALE: Esneki lotea

GAZTEZULO: 3 hilabetez doan

EREIN: Argitaletxearen liburu bat



2., 3. ETA 4. SARIAK:

DOÑOSTIAKO AQUARIUMA: 2 sarrera

ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua

LACTURALE: Esneki lotea

EREIN: Argitaletxearen liburu bana



lacturale

AQUARIUM

GAZTEZULO

Ekain berri

CAMPING ARTAZA

KAIR

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGURDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /

kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 5

LAKUNTZA, ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzeak. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske elkarretaratzea. 20:00etan, udaletxearen parean.

IGANDEA 7

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 8

ALTSASU Pentsio duinen alde. Sakanako Jubilatuen eta Pentsiodunen Koordinakundeko kontzentrazioa. 12:00etan, Zumalakarregi plazan.

**Elkarretaratzeetan segurtasun neurriak bete beharko direla jakinarazi dute eragileek; maskara jartzea eskatzen dute, eta pertsonen artean bi metroko distantzia errespetatu beharko da.*

Zorion agurrak

ZORION@GUAIXE.EUS

948 564 275

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAERA

Altsasun, asteburuetan, jende heldua zaintzeko emakume batek bere burua eskaintzen du. Interesatuak deitu 651 472 721 tfnora.

LEHIAKETAK

Etxarri Aranazko abesbatzaren 50.urteurrenaren logotipo lehiaketa: Edonork parte har dezake. DIN A4 formatoan (ordenagailuz edo eskuz eginda), gehienez bi lan aurkez daitezke. Saria 150 euro. Lanak uztailaren 31a baino lehen bidali behar dira. Etxarri Aranazko abesbatza; Maiza kalea 60, 31820 Etxarri Aranatz. Informazio gehiago 628 077 822 tfnoan.

OHARRAK

Odol-emateak Etxarri Aranatz: garagarrilaren 3an eta 10ean, 17:00 etatik 20:30 tara.

Odol-emateak Olaztin: garagarrilaren 11ean, 17:00 etatik 20:30ra...www.adona.es.

Altsasun egur loteak eskatzeko epea zabalik: ekainaren 12ra arte 948 012 012 zenbakira deituz; izen-abizenak, NAN zenbakia, telefono mugikorren zenbakia eta posta elektronikoa eman behar dira. Loteak 20 balio du eta ordainketa txartel edo transferentzia bidez egin beharko da.

Lakuntzako musika eskola: matrikula epea hilaren 28ra arte zabalik dago. Internet bidez egin behar da matrikula: <https://labur.eus/zbv5A>. Hilaren 25ean, 16:30ean, informazio

bilera izanen da musika eskolaren funtzionamendua azaltzeko. Musika hizkuntza eta instrumentua hastera doazen ikasleen familiei zuzendutako bilkura da. Ikasturtea irailaren 14an hasiko da.

Etxarriko etxerako egur loteak: Etxarri Aranazko Udalak jakinarazi du hilaren 19ra arte eskatu daitezkeela etxerako egur loteak. Eskaera udaletxearen egiteko alde aurreko txanda eskatu behar da. www.etxarriaranatz.eus web orriaren bidez ere egin daiteke eskaera. 44 euro balio dute, 66 epe kanpo eskaera egin ez gero. Ordainketa banku bidez egin behar da.

Olaztagutiko Udan Euskaraz: COVID-19ak ekarri zuen alarma egoeratik bertan behera gelditu zen haurren dako udako aisialdi programako izen ematea. Olaztagutiko Udalak izena emateko epea zabaldu du berriro eta hilaren 10era arte eman daiteke. Horretarako 012 edo 948 012 012 telefonoetara hots egin daiteke. Haur bakoitzeko 35 euro, baina familia bereko bi haur edo gehiago badaude, 58 euro. Udan Euskaraz programaren garapena osasun krisiaren inguruan hartzen dituzten neurrien menpe egon da.

Irutzungo igerilekurako: Irutzungo Udalak jakinarazi du igerilekua martxan jartzeko hainbat kontratazio eginen dituela. Alde batetik, mantenu lanak egiteko. Bestetik, sorosle izateko. Horietan interesa dutenek beraien eskaerak hilaren 10eko 14:00etarako aurkeztu behar dituzte udaletxean. Azke-

nik, igerilekuko taberna kudeatzeko interesa dutenek eskaintzak hilaren 18ra arte aurkeztu ditzazkete. Baldintzak eta eskaera ereduak www.irutzun.eus web orrian daude.

Irurtzun, Lakuntzan, Arbizun, Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen eta Olatzagutian ur kontagailua etxe barruan dutenek Sakanako Mankomunitatearen Ur Zerbitzura bidali behar dute beraien kontsumoaren datua. Horretarako, hots egin 948 464 867 telefonora (4. luzapena), whatsapp mezua bidali 663 399 732 telefono zenbakira edo ura@sakana-mank.eus e-posta helbidera bidali irakurketa. Kontagailuan komaren aurretik dauden beltzeko zenbakiak dira eman behar direnak.

Adingabe atzeritarrekin egoteko boluntarioak: bakarrak dauden adingabe atzeritarrek bizi dira Iturmendin eta Altsasun. Haiei udan akonpainamendua egiteko boluntarioak behar dira. Gizarte eta hezkuntza arloko akonpainamenduz aparte aisialdiko jarduerak egiteko da. Iturmendin asteartean 10:00etatik 14:00etara eta ostegunetan 11:00etatik 14:00etara. Altsasun ostiralean 11:00etatik 14:00etara. Altsasun, gainera, mentore izateko aukera dago. Sei elkartearkin harremanetan jartzeko: 948 239 739 edo 673 329 449 eta gestorasocial@asociacionsei.org Informazio gehiagorako: www.asociacionsei.org

www.iragarkilaburrak.eus

iragarki laburrak .eus

Hemen eta online

iragarki laburrak .eus



DEKOVEN NAVARRA

CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
 Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
 Telf./Faxa: **948 468 360** · Telefono mugikorra: **690 641 860**



ESKELA



Oskar Lizarraga Gartziandia



Etxeberri-Irurtzun, 2020ko maiatzaren 30ean

Oskar zuregatik topa
Izango zaitugu bertan
Zizelkatuta betiko
Pikuko horma zaharretan

Pikuxar Euskal Txokoa

ESKELA



Oskar Lizarraga Gartziandia

Eskerrik asko Oskar, pasarazi dizkiguzun
mila une zoragarriengatik, ezingo ditugu
zure bromak eta zure farrak inoiz ahaztu.
Betirako zure baikortasuna!
Gure bihotzetan zaude!

Pikuxarreko tabernariak

ESKELA



Juan Urkia Arratibel

(Migel Anjel Urkia, "Duri", udal zinegotziaren aita)

Arbizuko Udalak bat egiten du familiaren
saminarekin, eta bereziki "Duri" gure kidearekin



Arbizuko Udala
Arbizun, 2020ko ekainaren 1ean

ESKELA



Oskar Lizarraga Gartziandia

Guregan dirau zure jarrera baikorrak,
zure umoreak eta zure gertutasunak.
Eskerrik asko bihotzez, Oskar,
ez zaitugu sekula ahaztuko.
Animo familia guztiari.

Olaztiko eta Irurtzungo lagunak

ESKELA

Oskar Lizarraga Gartziandia

Gure artean beti FENOMENALA



Aralar Mendi futbol taldeko kideak

ESKELA



Oskar Lizarraga Gartziandia

Etxeberri-Irurtzun, 2020ko maiatzaren 30ean

Kantatu nahi dut bititza
Usteltzen ez bazait hitza
Mundua dantzan
Jarriko nuke jainkoa banintza

Orritz-Iskidi

JAIOTZAK

- **Zaynab Hissi**, maiatzaren 28an Altsasun

HERIOTZAK

- **Oscar Antonio Lizarraga Garziandia**, maiatzaren 30ean Etxeberrin
- **Juan Urkia Arratibel**, ekainaren 1ean Arbizun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN
JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN
JAKINARAZI DEZALA.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak
baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

"Bizikleta elektrikoak nire bizitza aldatu du"

Gaixotasun autoimmune bat diagnostikatu eta gero, mendi bizikletari ia agur esan behar izan zion Julian Claverrek, baina bizikleta elektrikoari esker bizikletaz gozatzen jarraitzen du %100ean

Maider Betelu Ganboa ALTSASU

1 Biker amorratua zara.

Betidanik kirola gustuko izan dut. Txikitik kroseean ibili nintzen, eta ondoren futboleak. Behin semea etorri zitzaidan, asteburuan Sakanako Bizikleta Eguna zela eta bertan aritu nahi zuela esanez.

2 Beraz, Sakanako Bizikleta Egunagatik hasi zinen txirrindulan.

Bai (kar, kar...). Orduan mendiko bizikletak zeuden pil-pilean. Halako bat erosi nuen eta Bizikleta Eguneko 3. ediziora joan nintzen semearekin. Burundako BTT taldeko jendearekin harremana egin nuen eta mendiko bizikletak edozein txokora joateko askatasuna ematen zuela jabetu nintzen: mendira, basora... Orduan hasi nintzen, badira jada 24 urte.

3 Eta egun Barranka Txirrindularitza Taldeko presidente zara.

Bai, Burundako BTT ataleko arduraduna nintzen, berregituraketa egin genuenean Barranka taldeko presidente izendatu ninduten.

4 Zerk bulkatu zintuen bizikleta elektriko bat erostera?



Julian Claver, bizikleta elektrikodun bikerra. UTZITAKOIA

2012an gaixotu nintzen. Indarra galtzen hasi nintzen, gurpil aulkian geratzeraino. Gaixotasun arraro bat diagnostikatu zidaten, Estatuan soilik hiru pertsonek genuena. Gaixotasun autoimmune bat da, giharrei eta nerbioei

eragiten diena. Tratamendu bati esker gutxika indarra berreskuratzen hasi eta pausoka hasi nintzen. Urte eta erdi pasa zen aulkia utzi nuenerako. Eta 2014an, 2 urte beranduago, bizikleta bat hartzea animatu nintzen.

5 Bizikleta hartzea garaipen handia izango zen zuretzat.

Ez nuen etsi, eta gutxika bizikletarekin lanean hasi nintzen. Gravel antzeko bizikleta arinago bat erosi eta nire kabuz hasi nintzen ibiltzen, gutxika, 15-20 kilometro inguru osatzerara arte, beti eremu lauetan eta etxetik gertu. 2016an Urretxuko ezagun batek Orbea bizikleta elektriko bat probatu al nuen galdetu zidan arte.

6 Orbea bizikleta elektrikoak probatzea eskaini al zizuten?

Orbeak bizikleta elektriko berria egin zuen eta osasun arazo arinak zituzten pertsonak behar zituzten bizikletak probatzeko. Hasieran ezetz esan nuen, baina urretxuarrak Altsasura etorri zen bizikletarekin. Mountain bike ederra zen, ez nuen inoiz halakorik ikusi. Pedalkadaz lagundutako sistemarekin zebilen, ez zuen inolako botoirik ez motorrik. Bost egunez erabili nuen. Hiru mugaraino igo nintzen, eta bateria aktibatuta, igoerak eremu lauak balira bezala egiten nituen. Harrituta geratu nintzen. Txostena prestatu nuen: egindako kilometroak, desnibela, bateriak irauten zuen tartea... eta urretxuarrari esan nion: "eskatu halako bizikleta bat niretzat". Eta ordutik aurrera nire bizitza aldatu egin zen. Berpiztu egin naiz. 2016 urtetik nabil bizikleta elektrikoan, uste dut Altsasun lehena izan nintzela. Sekulako askatasuna eman dit.

7 Nola dabil bizikleta elektrikoak?

Malda datorrenean edo nekatuta zaudenean mandoarekin bateria aktibatzen duzu eta motorra zu laguntzen hasten da, zuk

aukeratu duzun potentzian, geroz eta arinago. Zuk pedalkadak ematen jarraitzen duzu, baina bateriaren laguntza duzula. Malda igotzen zaude baina eremu lauan joango bazina bezala, esfortzu minimoa egiten.

8 Bizikleta elektrikoak duzunetik Barrankak antolatutako irteera guztietan parte hartzen duzu?

Bai, asteroko irteeretara noa eta ibilbide guztia egiteko gai naiz. Esaterako, 50 kilometrokoa bada, esfortzuari begira elektrikoarekin 15 edo 20 egingo banitu bezala da niretzat. Hori bai, gero etxean atsedean hartu beharra daukat. Bizikleta honek bizia eman dit; 16.000 kilometro egin dizkiot, eta sekulako martxak egin ditugu, joan den urteko Via Augusta, esaterako.

9 Bizikleta elektrikoekin dabilen jende gehienak osasun arazoak ditu edo adinez nagusiak dira?

Ez, denetatik dago: bizikletan gozatu eta une jakinetan laguntza behar duten gazteak; lantokira joateko bizikleta erosten dutenak; bizikletan ibili nahi duten baina horrenbesteko sasoiak ez dutenak; adinez nagusi direnak; hirietako garraio bezala erabiltzen dutenak... denetarik.

10 Hortaz, bizikleta elektrikoak gomendatzen duzu?

Jakina; jende asko etortzen zait galdezka, eta nik onurak besterik ez dizkiot ikusten. Bizikleta elektrikoaren salmentaren gorakada ikusgarria da.

11 Urtetik urtera hobeak izango dira.

Bateriari begira geroz eta autonomia handiagoa dute.



DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu



**EMAIOZU
BULTZADA
ZURE IRUDIARI**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe